# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-7033

2/2001 LEGEA, azaroaren 30ekoa, 2002. urteko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak finantzatzeko foru-aldundiek egin beharreko ekarpenen aurreikuspenak zehazten dituena.

Eusko Legebiltzarrak azaroaren 30eko 2/2001 Legea, 2002. urteko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak finantzatzeko foru aldundiek egin beharreko ekarpenen aurreikuspenak zehazten dituena, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

AZAROAREN 30EKO 2/2001 LEGEA, 2002. URTEKO EKITALDIAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTUAK FINANTZATZEKO FORU ALDUNDIEK EGIN BEHARREKO EKARPENEN AURREIKUSPENAK ZEHAZTEN DITUENA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 29. artikuluko 1. paragrafoan zehazten duenaren arabera, urtero eta urriaren hamabostera arteko epean, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko hurrengo urteko Aurrekontuko gastuei aurre egiteko zenbateko ekarpena egin behar duten zehaztu beharko du, eta onartutako akordioa Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, kontseiluaren txostenarekin batera. Hori guztia artikulu bakarreko lege-proiektu batean jasoko da.

Aipatutako artikulu horretako 4. paragrafoan esaten denaren arabera eta baliabideak nola banatu eta ekarpenak nola zehaztu jakiteko metodologia jasotzen duen legerik ez dagoenez, goian zehazten den prozedura hori egokia da 2002. urteko ekarpenak zenbatekoak izango diren erabakitzeko.

Foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen finantziazioan laguntzeko baliabideak nola banatu eta ekarpenak zenbatekoak izango diren esaten duen metodologiaren arabera, erakunde komunen eta lurralde historikoetako foru-organoen artean banatu behar dira Ekonomia Ituna kudeatzetik datozen diru-sarrerak, Estatuari ordaindu beharreko kupoa kendu ostean. Beraz, Estatuarekin berriz Ekonomia Ituna berritu ostean jakingo da zeintzuk diren EAEko erakundeen artean banatu beharreko baliabideak.

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-7033

LEY 2/2001, de 30 de noviembre, por la que se determina la previsión de las aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2002.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente

LEY 2/2001, DE 30 DE NOVIEMBRE, POR LA QUE SE DETERMINA LA PREVISIÓN DE LAS APORTACIONES DE LAS DIPUTACIONES FORALES A LA FINANCIACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO PARA EL EJERCICIO 2002.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley 27/1983, de 25 de noviembre, en su artículo 29, apartado 1, establece que dentro del plazo máximo de los quince primeros días naturales del mes de octubre de cada año el Consejo Vasco de Finanzas Públicas fijará para el ejercicio siguiente las aportaciones que deberán efectuar las Diputaciones forales a los gastos presupuestarios de la Comunidad Autónoma, elevándose al Parlamento Vasco el correspondiente acuerdo, al que se adjuntará el informe del Consejo, en forma de proyecto de ley de artículo único.

A tenor de lo dispuesto en el apartado 4 del mencionado artículo, y en ausencia de ley de metodología de distribución de recursos y de determinación de aportaciones, el procedimiento arriba indicado es el adecuado para fijar las aportaciones del ejercicio 2002.

La metodología de distribución de recursos y la determinación de las aportaciones de las Diputaciones forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco distribuye entre las instituciones comunes y los órganos forales de los territorios históricos los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico, una vez descontado el cupo a satisfacer al Estado. Consecuentemente, será la próxima renovación del Concierto Económico con el Estado la que determine los recursos a distribuir entre las instituciones del País Vasco.

Estatuarekin hurrengo Ekonomia Ituna berritzerakoan aldaketak izan daitezkeenez, baina euskal administrazio publikoen arteko finantza-neutraltasunaren printzipioa mantendu nahi denez, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari egokia iruditu zaio, aho batez erabakita, baliabideak banatzeari buruzko eta egin beharreko ekarpenei buruzko metodologia berriaren gaineko akordioa atzeratzea, hain zuzen ere Estatuarekiko akordioa lortu arte.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien 2002. urteko aurrekontuak egin beharrekoak direnez, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluan akordio bat onartu eta lege-proiektu gisa izapidetu beharra dago, lehen ere esan denez, datorren ekitaldiko ekarpenak zeintzuk izango diren jakiteko.

Egoera berezi honetan, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak, aho batez, egoki iritzi dio foru-aldundiek 2002. urterako erakunde komunei egin beharreko ekarpenak hasiera batean behintzat zenbatekoak izango diren zehazteari, eta horretarako gaur egun indarrean dagoen metodologia erabiltzeari.

Onartutako akordioak bost atal ditu. Lehenengo hirurak, hau da, A), B) eta C) hizkiak, kopuruei buruzkoak dira, eta egin beharreko ekarpenen aurreikuspenak, koefiziente horizontalen aurreikuspenak eta 2002. urterako Solidaritate Funtsari buruzko aurreikuspenak jasotzen dituzte. D) hizkian urriaren 31ko 6/1996 Legeko hamaikagarren xedapen gehigarriko lehenengo puntuan aurreikusita dagoen egokitzea ezartzea erabakitzen da; lege hori indarrean zegoen artean, puntu hori denboran luzatzea Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari zegokion. Bukatzeko, eta amaierako klausula moduan, E) hizki bat erantsi da, datorren ekitaldiko ekarpenen aplikazioa errazagoa izan dadin.

Foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak finantzatzeko 2002. urtean egin beharreko ekarpenari buruz Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak onartutako akordioa, hain zuzen ere azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 29. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoa betez, lege honekin batera eranskin gisa ageri da.

***Artikulu bakarra.–*** Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren akordioa onartu eta lege honekin batera eranskin gisa gehitu da. Akordio horretan foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak finantzatzeko 2002. urtean egin beharreko ekarpenen aurreikuspena zein den zehazten da.

Al objeto de mantener el principio de neutralidad financiera entre las Administraciones públicas vascas en las modificaciones que puedan introducirse en la próxima renovación del Concierto Económico con el Estado, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas ha considerado conveniente, por unanimidad, que el acuerdo sobre una nueva metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones se posponga hasta que se alcancen los acuerdos con el Estado.

Sin embargo, la elaboración de los Presupuestos para el ejercicio 2002 del Gobierno Vasco y las Diputaciones forales exige un acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas Públicas y su tramitación en forma de proyecto de ley, tal como se ha señalado, en relación con las aportaciones para el próximo ejercicio.

En esta situación excepcional, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, por unanimidad, ha considerado conveniente determinar las aportaciones iniciales de las Diputaciones forales a las instituciones comunes para el ejercicio 2002 utilizando para su cálculo la metodología actualmente vigente.

El acuerdo adoptado consta de cinco partes. Las tres primeras, letras A), B) y C), de carácter cuantitativo, determinan la previsión de las aportaciones, la previsión de los coeficientes horizontales y la previsión del Fondo de Solidaridad para el ejercicio 2002. La letra D) acuerda la aplicación del ajuste previsto en el punto primero de la disposición adicional undécima de la Ley 6/1996, de 31 de octubre, cuya prórroga durante la vigencia de dicha ley correspondía adoptar al Consejo Vasco de Finanzas Públicas. Por último, se recoge como cláusula de cierre una letra E), al objeto de facilitar la aplicación práctica de las aportaciones del próximo ejercicio.

El acuerdo adoptado por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas en relación con las aportaciones de las Diputaciones forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2002, en cumplimiento de lo preceptuado en el artículo 29, apartado 1, de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, se incorpora como anexo a la presente ley.

***Artículo único.–*** Se aprueba el acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, que se recoge como anexo a la presente ley, en el que se determina la previsión de las aportaciones de las Diputaciones forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2002.

ERANSKINA

Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren akordioa

Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak, 2001eko urriaren 15ean izandako bileran, ondorengo akordioa onartu du, kide guztiak bat datozela:

AKORDIOA

A) Foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak finantzatzeko 2002. urtean egin beharreko ekarpenen aurreikuspena onartzea; honela geratuko da:

ANEXO

Acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas Públicas

El Consejo Vasco de Finanzas Públicas, en sesión celebrada el día 15 de octubre de 2001, por unanimidad de todos sus miembros,

ACUERDA

A) Aprobar la previsión de las aportaciones de las Diputaciones forales al sostenimiento de las cargas de las instituciones comunes para el ejercicio 2002, que serán las siguientes:

| | (en miles de euros) / (mila euro) |
|---|---|
| Ekarpen orokorra / *Aportación general* | 3.194.584,79 |
| Ekarpen bereziak: / *Aportaciones específicas:* | 2.083.420,95 |
| – Ertzaintza / *Policía Autónoma* | 373.937,11 |
| – Insalud eta Inserso / *Insalud e Inserso* | 1.709.442,31 |
| – Eskumen berriak / *Nuevas competencias* | 41,53 |
| – LHLko 22.3 art.ko politikak / *Políticas art. 22.3 LTH* | 0,00 |
| EKARPENAK, GUZTIRA / *TOTAL APORTACIONES* | 5.278.005,74 |

B) 2002. urteko ekitaldiko koefiziente horizontalen aurreikuspenak onartzea; honela geratuko dira:

B) Aprobar la previsión de los coeficientes horizontales para el ejercicio 2002, que serán los siguientes:

| Lurraldea / *Territorio* | Koefizientea / *Coeficiente* |
|---|---|
| Araba / *Álava* | 16,59 |
| Bizkaia | 50,20 |
| Gipuzkoa | 33,21 |

C) Solidaritate Funtsaren aurreikuspena onartzea eta horretarako 28.221,63 mila euro izatea 2002. urteko ekitaldian.

Funts hori finantzatzerakoan, Eusko Jaurlaritzak %66,25 jarriko du, eta gainontzeko %33,75 hiru foru-aldundiek, 2002rako duten koefiziente horizontalaren arabera.

Erakunde bakoitzak ondorengo kopuruok jarri beharko ditu:

C) Aprobar la previsión del Fondo de Solidaridad por un importe de 28.221,63 miles de euros para el ejercicio 2002.

La financiación de este Fondo corresponderá en un 66,25% al Gobierno Vasco y en otro 33,75% a las tres Diputaciones forales en proporción a su coeficiente horizontal para el 2002.

Cada institución participará con los siguientes importes:

(mila euro) / *(en miles de euros)*

| Erakundea / *Institución* | % | Zenbatekoa / Importe |
|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza / *Gobierno Vasco* | 66,25 | 18.696,83 |
| Foru-aldundiak: / *Diputaciones forales* | 33,75 | 9.524,80 |
| Araba / *Álava* | 5,5991 | 1.580,16 |
| Bizkaia | 16,9425 | 4.781,45 |
| Gipuzkoa | 11,2084 | 3.163,19 |
| FINANTZIAZIOA, GUZTIRA / *TOTAL FINANCIACIÓN* | 100,0000 | 28.221,63 |

D) Foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpena zehazten duen metodologiaren hamaikagarren xedapen gehigarriko lehenengo puntuan aipatzen den egokitzea egitea onartzea 2002. urtean ere, 1997, 1998, 1999, 2000 eta 2001. urteko ekitaldietan egindako moduan.

E) Eusko Legebiltzarrak ekarpenak zehazteko metodologiari buruzko beste lege bat onartzen ez duen artean, 2002. urterako ere indarrean jarraituko dute urriaren 31ko 6/1996 Legean jasotako xedapen metodologiko, operatibo eta formalek.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko abenduaren 12an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

D) Aprobar la aplicación en el ejercicio 2002 del ajuste previsto en el punto primero de la disposición adicional undécima de la metodología de determinación de las aportaciones de las Diputaciones forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco para los ejercicios 1997, 1998, 1999, 2000 y 2001.

E) En tanto se apruebe por el Parlamento Vasco una nueva ley de metodología de determinación de las aportaciones, continuarán vigentes para el ejercicio 2002 las disposiciones metodológicas, operativas y formales de la Ley 6/1996, de 31 de octubre.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 12 de diciembre de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-7034

AGINDUA, 2001eko azaroaren 20koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Justizia Administrazioaren EAEko Aztergunearen antolaketa eta funtzionamendu araudia onartzen duena.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatzen duen uztailaren 27ko 303/1999 Dekretuak, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzari esleitzen dio, besteak beste, Justizia Administrazioari buruzko azterlanak sustatzea eta antolatzea, Aginte Judizialaren Kontseilu nagusiko Dokumentazio Judizialeko Zentroarekin eta Justiziako gainerako instituzio eta organoekin lankidetzan. Eta hori aurrera eramateko, Justizia Administrazioaren EAEko Aztergune bat eratzea aurreikusten da.

Maiatzaren 8ko 81/2001 Dekretuaren bidez, Justizia Administrazioaren EAEko Aztergunea sortu eta arautu da, Justizia Administrazioarekin erlazionatuta dauden gaietan Euskal Autonomia Erkidegoko kontsulta eta aholkularitza organoa izan dadin.

Zentzu honetan, Aztergunea Justizia Administrazioarekin erlazionatuta dauden gaiei buruzko ikerketak, eztabaidak, azterketak eta jarduteko proposamenak egiteko gunea izango da, eta zerbitzu publiko horren es-

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-7034

ORDEN de 20 de noviembre de 2001, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento del Observatorio Vasco de la Administración de Justicia.

El Decreto 303/1999, de 27 de julio, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social (en la actualidad de Justicia, Empleo y Seguridad Social), asigna a la Dirección de Relaciones con la Administración de Justicia, entre otras cuestiones, la de promover y organizar, en colaboración con el Centro de Documentación Judicial del Consejo General del Poder Judicial y demás instituciones y órganos de la Justicia, estudios sobre la Administración de Justicia, para lo cual se prevé la creación de un Observatorio Vasco de la Justicia.

Mediante el Decreto 81/2001, de 8 de mayo, se procede a la creación y regulación del citado Observatorio como órgano consultivo y de asesoramiento de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materias relacionadas con la Administración de Justicia.

En este sentido, se configura al Observatorio como un foro de investigación, debate, análisis y propuesta de actuación en materias relacionadas con la Administración de Justicia, y constituye un lugar de encuentro